

Enpresak zein eta zenbat gastu izango dituen aztertu ondoren, gastu horiek nola bideratuko ditugun baloratu beharko dugu. Horretarako, behar ditugun baliabideak, materialak eta instalazioak zeintzuk diren ikusi beharko dugu. Hortaz aparte, kolaboratuko dugun enpresak, finantziazioa eskainiko digu eta gainerakoekin kontaktatzerakoan, merkeena eta osatuena bilatuko dugu beti.

Hasteko, lehiaketa publiko bat antolatuko dugu, kanalaren diseinua egin ahal izateko. Lehiaketaren berri gure web-gunean emango dugu, eta edozeinek izango du parte hartzeko aukera. Jendeak diseinua egiten duenean, guri bidaliko digu. Diseinu guztiak aztertu ondoren, gure proiektura hoberen egokitzen dena aukeratuko dugu eta hori izango da aurrera eramango duguna.

Obra egiten hasi aurretik, kanala eraikitzeke materialak aukeratu beharko ditugu. Behin materialak aukeratu ditugula, Erreka mozteko, zuloa egiteko, zementua jartzeko, harriak jartzeko eta ur-bombak jartzeko enpresa desberdinekin kontaktatu beharko dugu, eta diseinua egiten dirua aurreztu dugunez, inbertitzeko nahikoa izango dugu. Ur-bombak guk erosiko ditugu eskaintza hoberena duen enpresatik, eta ondoren beste enpresa batekin harremanetan jarriko gara bomba horiek kanalean jarri ahal izateko, eta horri ere ordaindu egin beharko diogu.

Behin kanala eraikita dagoela, familia ezberdinek bazkaldu ahal izateko gunea eraiki beharko dugu, larre bat izango dena. Horretarako, zuhaitzak moztu beharko dira eta egur hori erabiliko dugu mahaiak egiteko, eta horrela dirua aurreztu ahal izango dugu.

Kanala eta aisialdirako gunea eraikita dagoenean, taberna bat, komunak, aldagelak eta harrera gela eraiki beharko dira. Egitura sinpleko eraikin bat eraikiko dugu, eta bertan aurretik aipatu ditugun baliabideak eskainiko ditugu. Honen kostua ere ez da oso altua izango, etxetxo ez baita oso handia izango eta eraikitzeke adreilua erabiliko baitugu.

Gainera, jende asko kotxez edo motorrez etorri beharko da, eta horientzako parking bat eraikitzea beharrezkoa dela uste dugu. Parking hori eraikitzeke gastua ez da oso altua izango, nahikoa baita lurraren gainean zementua jartzea, eta plaza desberdinak marrekin bereiztea, kolore desberdinak erabiliz.

Azkenik, kanalean bertan egingo diren kirolak egin ahal izateko, piraguak, hidrospeed egiteko tablak eta rafting egiteko lantxak eskuratu beharko ditugu. Hauek erosteko atzerriko enpresa batekin kontaktuan jarriko gara, beste herrialde batzuetan merkeago eros baitaitezke.